

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Vitoria-Gasteiz, 28 de enero de 2020

BILDU DIRA

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia, eta Eneko Goia Laso jauna, Donostiako alkate udalburua.

SE REÚNEN

El Sr. D. Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Eneko Goia Laso, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de San Sebastián.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jauna baita eta agentzia horren estatutueta 7.2.g) artikulua ematen dion eskudantzia betez.

INTERVIENEN

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

Bigarrenak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 124.4 a) artikulua bidez udala ordeztzeko eman dion legezko ahalmena erabiliz.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 124.4 a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Parte hartzaileek elkarri aitortzen diote LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko behar den lege gaitasuna eta horretarako

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

HONAKOA AZALTZEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- 2012ko abenduaren 4an Uraren Euskal Agentziak eta Donostiako Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten Txomin Enea LM.06 eremuko urbanizazioan Urumea ibaiaren gainean zubi baten egikaritze proiektu bat idazteko.

PRIMERO.- Que el 4 de diciembre de 2012 la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de San Sebastián suscribieron un convenio de colaboración para la redacción del proyecto de ejecución de un puente sobre el río Urumea en la Urbanización del Área LM.06 Txomin Enea.

BIGARRENA.- Hitzarmen horretan, gainera, alderdiek konpromisoa hartu zuten proiektu horretako obren egikaritzea %50ean finantzatzeko, proiektua idatzi ondoren, obra zuzendaritzaren ordainsariak eta gainerako proiektu gastuak barne, sinatzaileen aurrekontu baliabideen barruan, beste hitzarmen bat sinatuz edo hura handituz.

SEGUNDO.- Que dicho convenio contemplaba además el compromiso de las partes de financiar al 50% la ejecución de las obras incluidas en el referido proyecto tras su redacción, incluyendo los honorarios por dirección de obra, y demás gastos de proyectos dentro de las disponibilidades presupuestarias de las firmantes, mediante la suscripción de un nuevo convenio o ampliación de aquel.

HIRUGARRENA.- "Txomin Enea LM.06 eremuaren urbanizazioan Urumea ibaiaren gainean zubi bat egikaritzeko proiektua" idatzi ondoren eta horretarako aurrekontu egokia izanda, bi alderdiek beste hitzarmen bat formalizatu dute aipatutako

TERCERO.- Que, una vez redactado el "Proyecto de ejecución de un puente sobre el río Urumea en la Urbanización del Área LM.06 Txomin Enea" y disponiendo de presupuesto adecuado para ello, ambas partes proceden a formalizar un nuevo

proiektuan behin betiko sartutako obren finantzaketan eta kontratazioan laguntzeko.

Hauek dira hitzarmena arautuko duten

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da arautzea Uraren Euskal Agentziak eta Donostiako Udalak hitzarmen honen bigarren klausulan jasotako obrak egikaritzen laguntzeko hartutako konpromisoaren baldintzak.

BIGARRENA.- Egikaritu beharreko jarduketak.

Egikaritu beharreko jarduketak, hurrengo klausuletan ezarritako baldintzetan, "Txomin Enea LM.06 eremuaren urbanizazioan Urumea ibaiaren gainean zubi bat egikaritzeko proiektuan" jasotakoak dira.

Obra horien bidez, zubi berri bat egingo da Txomin-Eneako LM.06 eremuan dagoena ordeztzeko, taulak, zutabeak eta estribuak barne. Era berean, estribuak euste horma gisa luzatuko dira eta gaur egun dagoen zubia eraitsiko da.

HIRUGARRENA.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Gainbegiratzea "Txomin Enea LM.06 eremuaren urbanizazioan Urumea ibaiaren gainean zubi bat egikaritzeko proiektuko" obrak
- b) Finantzatzea eta ordaintzea proiektuko obren kontratazioaren eta obra zuzendaritzaren ordainsarien eta proiektuen gainerako gastuen benetako kostuaren %50a.

Hitzarmen honen arabera, Uraren Euskal Agentziak egingo duen gehieneko ekarpena MILIOI BAT LAUREHUN ETA BOST MILA ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA LAU KOMA HIRUROGEITA HEMEZORTZI

convenio para colaborar en la financiación y contratación de las obras definitivamente incluidas en el reiterado proyecto.

Todo ello con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto del Convenio.

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y el Ayuntamiento de San Sebastián se comprometen a colaborar en la ejecución de las obras recogidas en la cláusula segunda del presente convenio.

SEGUNDA.- Actuaciones a ejecutar.

Las actuaciones a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las recogidas en el "Proyecto de ejecución de un puente sobre el río Urumea en la Urbanización del Área LM.06 Txomin Enea".

Las obras consisten en la realización de un nuevo puente en sustitución del existente en el Área LM.06 de Txomin-Enea, incluyendo tablero, pilas y estribos, así como la prolongación de los estribos en forma de muros de contención y la demolición del puente existente.

TERCERA.- Compromisos de la Agencia Vasca del Agua.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

- a) Supervisar la ejecución de las obras del "Proyecto de ejecución de un puente sobre el río Urumea en la Urbanización del Área LM.06 Txomin Enea"
- b) Financiar y abonar el 50% del coste efectivo de la contratación de las obras incluidas en el proyecto y de los honorarios por dirección de obra y demás gastos de proyectos.

El importe previsto como aportación máxima que compromete a la Agencia Vasca del Agua en virtud del presente convenio asciende a UN MILLÓN CUATROCIENTOS CINCO MIL SETECIENTOS OCHENTA

EUROKOA (BEZa barne) izango da, hitzarmen honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Zenbateko hori 2019rako ordainketa kreditu bati dagokio eta Uraren Euskal Agentziaren aurrekontuaren kargura finantzatzeko da.

LAUGARRENA.- Donostiako Udalaren konpromisoak.

Donostiako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Aurkeztea "Txomin Enea LM.06 eremuaren urbanizazioan Urumea ibaiaren gainean zubi bat egikaritzeko proiektua", behar bezala onetsita.
- b) Lortzea, bere kargura, behar diren lurak, behin-behinean edo behin betiko, obrak egikaritzeko.
- c) Kontratatzea, zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea obren egikaritzea, bosgarren klausulan ezarritakoaren arabera.
- d) Proiektuan jasota ez dauden zerbitzu ukituak berriz ezartzea, baita lortzea ere lizentziak, baimenak –baita beharrezkoak badira hidraulikoak ere– eta hitzarmenaren xede diren jarduketak kontratatze eta gauzatzeko aurretiazkoak eta beharrezkoak diren ez kontratuzko gainerako tramite administratiboak.
- e) Finantzatzea eta ordaintzea aurreko klausulan jasotako obren kontratazioaren, obra zuzendaritzaren eta proiektuen gainerako gastuen benetako kostuaren gainerako %50a.

"Txomin Enea LM.05" eremuaren urbanizazioan Urumea ibaiaren gainean zubi bat egikaritzeko "obren kontratua" esleitzeari dagokion zenbatekoa Donostiako Udalaren aurrekontuetan dago jasota.

- f) Obrak era egokian kudeatzea eta mantentzea, udalaren jabetzakoak izango baitira, eta konpromisoa hartzea helburu horretarako behar diren aurrekontu aurreikuspenak eta neurriak hartzeko.

Y CUATRO EUROS Y SETENTA Y OCHO CÉNTIMOS, IVA incluido, en los términos previstos en el anexo que acompaña al presente convenio, correspondientes a un crédito de pago para 2019, que se financiarán con cargo al presupuesto de la Agencia Vasca del Agua.


CUARTA.- Compromisos del Ayuntamiento de San Sebastián.

El Ayuntamiento se compromete a:

- a) Aportar el "Proyecto de ejecución de un puente sobre el río Urumea en la Urbanización del Área LM.06 Txomin Enea", debidamente aprobado.
- b) Obtener, a su cargo, los terrenos precisos, temporal o definitivamente, para la ejecución de las obras.
- c) Contratar, dirigir e inspeccionar técnicamente la ejecución de las obras, de conformidad con lo dispuesto en la cláusula quinta.
- d) Reponer los servicios afectados no contemplados en el proyecto, así como obtener las licencias, autorizaciones incluidas de ser necesario las hidráulicas y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio.
- e) Financiar y abonar el restante 50% del coste efectivo de la contratación de las obras recogidas en la cláusula precedente, así como de la Dirección de obra y demás gastos de proyectos.

El importe correspondiente a la adjudicación del "contrato de obras de ejecución de un puente sobre el río Urumea en la Urbanización del área "LM.05 Txomin Enea" se encuentra comprometido en los Presupuestos del Ayuntamiento de San Sebastián.

- f) Realizar una gestión y mantenimiento adecuados de las obras, que quedarán en propiedad municipal, comprometiéndose a adoptar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.



g) Mantentze eta garbiketa lanak egitea aldian behin, betiere egokiak izango direnak entregatuko diren azpiegitura hidraulikoen urak husteko gaitasuna mantentzeko.

BOSGARRENA.- Obrak kontratatzea, zuzentzea eta ikuskatzea.

1.- Donostiako Udalaren ardura izango da, hitzarmen honen 3.c) klausularen arabera, jarduketak kontratatzea, zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea.

2.- Jarduketei buruzko identifikazio karteletan, iragarkietan eta edozein eratako seinaleetan adieraziko da Uraren Euskal Agentziak obrak finantzatzen lagundu duela.

3.- Udalak zortzigarren klausulan araututako segimendu batzordean izango dituen ordezkarien bidez unean uneko informazioa eman beharko dio Uraren Euskal Agentziari eta hitzarmen hau betetzeko, garatu eta gauzatuko diren tramite administratibo guztiei buruzko dokumentazioaren kopia bat emango dio.

Aipatutako agentziak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egokitzen duten edozein eratako dokumentazioa eta informazioa eskatu ahal izango dute eta ikuskapenak, kontrolak eta fiskalizazioak egin ahal izango dituzte autonomia erkidegoko administrazioaren ekarpenak helburu egokia duela eta ekarpen hori emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

4.- Obrak jasotzeko egintzan izango dira Uraren Euskal Agentziaren teknikariak, obrak amaitu ondoren, haien egokitzapen teknikoa ikuskatzeko.

SEIGARRENA.- Finantzaketarekin erlazionatutako bestelako gaiak.

Idatzizko aurretiazko baimena beharko dute edo, hala badagokio, hitzarmena aurrez aldatuko dute kasu hauek:

g) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las infraestructuras hidráulicas.

QUINTA.- Contratación, dirección e inspección de las obras.

1.- El Ayuntamiento de San Sebastián, conforme a la cláusula 3.c) del presente convenio, será responsable de la contratación, dirección e inspección técnica de las actuaciones.

2.- En los carteles identificativos, anuncios y cualquier clase de señalización referente a las actuaciones se hará constar la participación de la Agencia Vasca del Agua en la financiación de las obras.

3.- A través de sus representantes en la comisión de seguimiento, regulada en la cláusula octava, el Ayuntamiento deberá informar puntualmente a la Agencia Vasca del Agua y aportar a la misma copia de la documentación referente al desarrollo y ejecución de todos y cada uno de los trámites administrativos que ocasione el cumplimiento del presente convenio.

La citada Agencia y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas podrán solicitar la documentación e información y efectuar las inspecciones, controles y fiscalizaciones de cualquier naturaleza que estimen oportunos para la determinación del adecuado destino de la aportación de la Administración de la Comunidad Autónoma y del cumplimiento de las condiciones en que se otorga.

4.- Al acto de recepción de las obras asistirá personal técnico de la Agencia Vasca del Agua con el fin de fiscalizar la adecuación técnica de las obras una vez finalizadas.

SEXTA.- Otras cuestiones relacionadas con la financiación.

Requerirán previa autorización por escrito o, en su caso, la previa modificación del convenio:

a) Onetsitako proiektuan zehaztutako obren osagarri diren obrak.

b) Oro har, ondorio ekonomikoak dituen edozein kontratu erabaki, baldin eta Uraren Euskal Agentziaren finantzaketa konpromisoari eragiten badio.

ZAZPIGARRENA.- Ekarpenen helburua eta ordainketa.

1.- Uraren Euskal Agentziaren ekarpena soilik izango da hitzarmen honen xede diren obren egikaritze normalak sortuko duen kostua finantzatzeko. Ondorioz, ez dira ordainduko horren kargura kontratazio organoari dagozkion kontratu betebeharrak ez betetzeagatik sor daitezkeen zenbatekoak, adibidez, zuinketa desegoki batek sortutakoak, lurak erabilgarri ez izatearen ondoriozkoak edo ziurtagiriak berandu ordaintzeagatik sortutakoak; ez dira ordainduko, halaber, bestelako kontzeptuak, esaterako, kostu finantzarioak, lurak eskuratzekoak, etab.

2.- Dagokion zenbatekoa hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko da eta hirugarren klausulan ezarritako ekarpena egingo da. Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du Uraren Euskal Agentziari igortzeko orain arte egindako ziurtagiriak eta gauzatuko diren ziurtagiriak.

3.- Inolako kasutan Donostiako Udalak ezingo die kontratistei baldintza gisa ezarri obrako ziurtagiriak ordaintzeko, aurrez agentziak dagokion ekarpena egin behar izatea; beraz, kontratistari epe egokietan ordainduko dio berandutzea saihesteko eta, ez badu hori egiten, sor daitezkeen kalteen erantzulea izango da.

ZORTZIGARRENA.- Jarduketan segimendu batzordea.

1.- Hitzarmen honen segimendu batzorde bat eratuko da lau ordezkariarekin. Horietako bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira eta beste bi

a) Las obras accesorias o complementarias a las definidas en el proyecto aprobado.

b) En general, cualquier toma de decisión contractual con implicaciones económicas que afecte al compromiso financiero de la Agencia Vasca del Agua.

SÉPTIMA.- Destino y pago de las aportaciones.

1.- La aportación de la Agencia Vasca del Agua sólo podrá destinarse a la financiación del coste derivado de la normal ejecución de las obras objeto del presente convenio. En consecuencia, no serán abonables con cargo a la misma aquellas cantidades que pudieren devengarse del incumplimiento de las obligaciones contractuales que incumben al órgano de contratación, entre las que se refieren las ocasionadas por un incorrecto replanteo, las derivadas de la falta de disponibilidad de los terrenos o las derivadas del tardío pago de las certificaciones, entre otras, ni tampoco otros conceptos diferentes tales como costes financieros, de adquisición de terrenos, etc.

2.- El pago del importe correspondiente se realizará tras la firma del presente convenio con la aportación establecida en la cláusula tercera. El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete al traslado a la Agencia Vasca del Agua de las certificaciones realizadas hasta la fecha y de las certificaciones futuras que se vayan ejecutando.

3.- En ningún caso el Ayuntamiento de San Sebastián podrá condicionar el pago de certificaciones de obra a los contratistas a la transferencia previa de la aportación que corresponda a la Agencia, debiendo, por tanto, efectuar los pagos al contratista en los plazos adecuados para evitar la incursión en mora y siendo responsable, en caso de no hacerlo, de los perjuicios que puedan irrogarse.

OCTAVA.- Comisión de seguimiento de las actuaciones.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por cuatro representantes, dos de la Agencia Vasca del Agua y

Donostiako Udalekoak eta, hurrenez hurren, hitzarmen hau sinatu duten alderdiek izendatuko dituzte eginkizun hauetarako:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren egikaritze normalaren segimendua egitea, elkarri informazioa emateko eta dagozkien konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztuta.

b) Kasu bakoitzean eskatzen diren tramiteen arintasuna tratatzen duten oztopoak ken daitezela erraztea.

c) Hitzarmen honen xede diren jarduketak betetzen direla bermatzeko behar diren neurrien berri ematea eta proposatzea, bereziki urterokotasuna egokitzeko kasuetan eta zazpigarren klausulan jasotakoetan.

d) Hitzarmenak planteatzen ditzakeen interpretazio eta egikaritze arazoak ebazten saiatzea.

2.- Hitzarmenaren indarraldian eta alderdietako edozeinen ordezkariak proposatuta, batzordea jarduketan martxa onak eskatzen duen aldi guztietan bilduko da. Bilerako quorumak eta erabakiak bertako kideek aho batez hartuko dituzte.

3.- Segimendu batzordearentzat berariaz aurreikusi ez den guztian, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak Atariko Tituluaren II. Kapitulua 3. Atalean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.

1.- Hitzarmen hau administratiboa da; beraz, interpretatzeko eta garatzeko, administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoa hartuko da kontuan.

dos del Ayuntamiento de San Sebastián, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula séptima.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

NOVENA.- Régimen e interpretación del Convenio.

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmen honek planteatzen ditzakeen interpretazio edo egikaritze arazoak segimendu batzordeak ebazteko dituen aurreko klausulan aipatutakoaren arabera; ezin bada, 40/2015 Legearen, urriaren 1ekoan ezarritakoa hartuko da kontuan.

HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.

1.- Hitzarmen honek ez du alderdien eskumenen uko egiterik eta aldaketarik ekarriko. Alderdiek hitzarmenaren arabera hartzen dituzten konpromisoen berezko ardurak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

2.- Hitzarmena sinatzen dutenetik izango dituen ondorioak eta esku hartzen duten alderdiak behartuko ditu, eta egikaritu beharreko jarduketaren kontratazioa likidatu eta ordaindu arte iraungo du; hasieran batean, gehienez lau urte iraungo du, luza daitekeena aplikatu beharreko legediaren arabera.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena iraungitzea.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan aipatutako indarraldia igarotzeagatik edo suntsiarazteagatik azkenduko da.

2.- Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoetako baten bat ez badu betetzen, beste alderdiak hitzarmena zorrozki betetzea edo hitzarmena suntsiaraztea eskatu ahal izango du.

Eta ezarritakoa betetz eta ezarritakoaren arabera, alderdiek bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI NAGUSIA /
EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA

ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO ARRIETA

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

DÉCIMA.- Efectos y duración del Convenio.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación y pago de la contratación de la actuación para su ejecución, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

UNDÉCIMA.- Extinción del Convenio.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

DONOSTIAKO ALKATE-UDALBURUA /
EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE
SAN SEBASTIÁN

ENEKO GOIA LASO